

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, gure proiektuak hainbat puntu garatuko lituzke. Lehenik eta behin, balorezko proposamena garatzea. Horrez gain, bezeroengana iritsi zein hauekiko harremana mantentzea lortuko genuke. Azkenik, enpresarekin orokorrean aurrera ateratzen lagunduko diguten diru sarrerak lortuko ditugu.



Aurrez aipatutako guztiarekin aurrera atera ahal izateko, lau baliabide hartuko ditugu kontuan. Alde batetik, baliabide fisikoak. Zehaztuz, instalazioak erabiliko ditugu, bertan langileak elkartuko eta lana egiteko. Enpresa berria garela eta, baliabide falta bat nabarmentzen denez, jada gurea ez den eraikin bateko bulego batzuk alokatuko ditugu. Bertan langile bakoitza gure aplikazioarekin lanean egongo da. Sistema informatikoak edukitzea gure enpresarako oso garrantzitsua izango da, izan ere, gure produktua aplikazio bat denez interneta erabili beharko dugu, eta horretarako sistema informatikoak edukitzea beharrezkoa izango dugu. Gure produkturako beharko dugun sistema informatikoak online produktuak erostea ahalbidetuko duen logistika eduki behar du. Banaketa sarea, ere nahiko garrantzitsua izango da gure enpresarako, izan ere, propagandetan aterako da gure aplikazioa, eta horren bidez, pertsona gehiagorengana iritsiko da gure aplikazioa.

Baliabide intelektualei erreparatuz, gure taldearen indargunea trebetasun sozialak dira, horrez gain gure marka (Ampoule) bere kabuz arrakasta izango duen marka/aplikazioa izango da. Gure aplikazioa zerbait berritzailea denez patenteak edukiko ditu, horrela gure aplikazioa zertan datzan adieraziz. Ez dizkiogu egile eskubideak inori eman beharrik, izan ere, gu gara Ampoule aplikazioa sortu dugunak.

Giza baliabideei dagokienez, gaitasun komertziala badugu, izan ere, beste enpresekin kolaboratzeko aukera adibidez, propagandaren bidez. Gainera, bezeroak lortzeko gaitasun handia izango dugu: gure aplikazio beraienez moldatu dugu, hau da, aplikazioaren barruan bakoitzak berari bideratutako atala izango dute. Beste alde batetik, birziklatzeari dagokionez ezagutzaz baliatzen gara, izan ere, gure funtsezko baliabidea baita. Baina aplikazioaren munduari dagokionez, Play Store eta Apple Store enpresen laguntzaz baliatuko gara, honetan, berriz, ezagutza ez dugunez. Azkenik, sormenari

esker, hasierako ideia guztiak pentsatu, zein arazoei aurre egiteko baliabideak pentsatzeko gaitasunaz baliatuko gara. Hain zuzen ere, gure taldearen ustez hori izango da enpresarekin aurre egiteko urrats nagusia.

Gure enpresa antolatzeko garaian, sailetan banatutako enpresa sortuko dugu. Horretarako funtzioaren arabera sailkatuko dugu gure enpresa. Langileak beraien espezializazioaren arabera, hau da, beraien gaitasunaren arabera antolatuko gara, bakoitzak egiten duen lana kontuan hartuta. Hori dela eta, hemen aurkezten dizuegin organigrama izango da gure antolakuntza-eskema bezala erabiliko dugun euskarria.



Finantza-baliabideak proiektu honen kutsu garrantzitsu bat da. Izan ere, gure negozioak etekinak izateko eta horrekin batera enpresak porrot egin ez dezan ezinbestekoak da. Gure kasua dela-eta, gure produktuaren erosketa gauzatzeko baldintza batzuk daude. Hasteko, lehen aukera dohainekoa izango da, eta nahi bada, premiun aukera bat izango da ordainduz gero. Bigarren aukera horri esker eta publizitateari esker izango ditugu diru sarrerak. Horrez gain, guk kolaboratuko dugun enpresek behar bezainbesteko dirua emango digute. Esandako guztia kontuan izanda, kreditu linea izateko, materiala erosteko eta langileei soldata ordaintzeko aukera izango dugu. Honi esker, gure enpresaren oinarritzko pautak bete ahal izango ditugu.

Aurreko guztia kontuan izanda, ondoriozta dezakegu, giza baliabide eta baliabide intelektualei dagokienez, talde orekatua garela uste dugu. Noski, honek gure enpresan onurak ekarriko dizkigu, izan ere, gure balio proposamena aurrera eramateko ezinbestekoa izango da laguntza hau.